

# Hizkuntzaren erabilera: Ume baten jarduna eta helduaren laguntza

Proposatzen den lana: 3, 4 edo 5 urteko ume bati marrazki bilduma bat aurkeztuko zaio irudietan gertatzen den istorioa kontatu dezan. Umeak egiten duen kontakizunaren balorazio orokorra egingo da, baina bereziki aztertu nahi dena da helduak erabiltzen dituen estrategiak umeari kontakizun horretan laguntzeko.

## Lana egiteko oinarrizko bibliografia

Guibourg, I. (2000). El desarrollo de la comunicación. In Correig, M. & Bigas, M. (arg.), *Didáctica de la lengua en la educación infantil*. (orr. 13-42). Madrid: Síntesis.

Tough, J. (1996). *El lenguaje oral en la escuela*. Madrid: Visor.

3 testu

## Eman beharreko pausoak:

1. umea aukeratu.
2. interbentzioa aldeztu aurretik prestatu.
3. jarduna grabatu.
4. grabatutakoaren transkripzioa egin.
5. umeak egiten duen kontakizunaren balorazio orokorra egin.
6. umeari kontakizunean laguntzeko helduak erakusten dituen trebetasunak eta erabiltzen dituen estrategiak baloratu eta hobekuntza-proposamenak egin.
7. lanaren ahozko aurkezpena talde handian eta txosten idatzia irakasleari entregatu.

### 1. Umea aukeratu

Umea 3, 4 edo 5 urtekoa izango da. Umearekin dugun harremana garrantzitsua izango da umeak lasaitasunez berba egin dezan. Ez bagenu lehenagotik ezagutuko, ona litzateke elkarrizketatu aurretik harekin konfiantza pixka bat hartzea. Bestalde, oraingo honetan interesatzen zaiguna da umeak ama-hizkuntzan egiten duen erabilera; saiaturako gara ume euskalduna aukeratzeko, ondoren umeen erabilerak konparatu ahal izateko. Ezinezkoa balitz etxetik euskalduna den umea aurkitzea, D eremuan diharduen ume erdalduna aukeratu dugu.

### 2. Gure interbentzioa aldeztu aurretik prestatu

Gure egitekoa honako hau izango da: umea laguntzea irudietan azaltzen den istorioa kontatzen. Hala ere, kontuan hartu behar dugu ume txikien kasuan irudi-sekuentziak ikuste hutsa ez dela nahikoa izaten istorioa kontatu dezaten eta deskripzioa jotzeko joera handia dagoela bost urtera arte. Txikienei zaila egiten zaie irudiaren esanahi nagusia aurkitzea, irudi bakoitza hurrengoarekin erlazionatzea eta narrazio eskema bat osatzea. Horregatik lagundu behar dugu umeari irudien esanahi nagusia aurkitzen, istorioaren sekuentzia ezagutu dezan irudi bakoitza hurrengoarekin erlazionatzen, edota marrazkian agertzen den zerbait haren bizitzarekin erlazionatzen.

TOUGH-en testuan (“Cómo hacer una valoración. . .”) azaltzen zaigu helduen galderek izan dezaketen eragina umeen erantzunetan. Hala ere, galderak egitea ez da erabili daitekeen estrategia bakarra umea hitz egiten eta pentsatzen bultzatzeko eta horretan laguntzeko. Edozein kasutan ere, hainbat arazo sortu daiteke umearekin berba egiterakoan. Horregatik, inportantea da gure interbentzioa ahalik eta ondoen prestatzea: aldeztu aurretik pentsatu nola aurkeztu umeari aginduko diogun zeregina (marrazki bilduman azaltzen den istorioa kontatzea), zer-nolako galderak egin daitezkeen, erabili ahal ditugun estrategiak zeintzuk diren, nolako izan daitekeen gure laguntza, etab. (bibliografia kontsultatu).

Prestatu beharko dugu umeari aurkeztuko diogun marrazki bilduma ere eta erabaki zein izan daitekeen formaturik egokiena. Bestalde, saiatuko gara grabaketa bideoz egiten. Eta hori guztiz ezinezkoa balitz, audioz (hotsa bakarrik) egingo dugu. Edozein kasutan, kalitatezko grabaketa egiteko baldintzak ziurtatu ditugu.

### 3. Jarduna grabatu

Momenturik, tokirik eta modurik aproposena bilatuko dugu kontakizuna egiteko; oso garrantzitsua da giro ona eta lasaia sortzea. Jarduna audioz bakarrik grabatzen badugu, gerta daiteke momentu batzuetan beharrezkoa izatea umeak egiten duena jasotzea (adibidez, beste zerbaitekin jolasten hasten bada, edo zerbaiti begira geratzen bada, edo urduri mugitzen hasten bada, ...). Baloraziorako ezagutu beharko dugu umeak esaten duena baina baita egiten duena ere; azken hau, informazio iturri inportantea izan daiteke.

### 4. Grabatutakoaren transkripzioa egin

Esan bezala, transkripzioan umeak esaten eta egiten duena jasoko dugu.

Transkripzioan erabiliko ditugun ikurrak:

- / eten laburra
- (...) eten luzea
- :: hotsaren luzatzea
- (( )) hitzezkoak ez diren fenomenoak (adibidez, barrea,)
- XX ulertezina

Adibidez:

con un aprendizaje muy alto / muy alto ¿eh? / porque este niño ((señalando el video)) está haciendo qui

### 5. Umeak egiten duen kontakizunaren balorazio orokorra egin

Balorazio orokor hori egiteko orduan kontuan izango dugu zenbait alderdi:

- Gai da marrazkien edota istorioaren interpretazioa egiteko, esanguratsuak diren ezaugarriak antzemateko? Gai da irudiaren esanahi nagusia aurkitzeko ala deskripziora jotzeko joera du?
- Istorioaren sekuentzia ezagutzen du? Gai da irudi bakoitza hurrengoarekin erlazionatzeko eta narrazio eskema bat osatzeko?
- Hizkuntzaren erabileraren ezaugarri linguistikoak

### 6. Umeari kontakizunean laguntzeko helduak erakusten dituen trebetasunak eta erabiltzen dituen estrategiak aztertu eta hurrengo baterako hobekuntza-proposamenak egin

Lanaren atal hau garatzeko kontuan izango ditugu: helduaren jarrera, tonua, galdera motak, bestelako estrategiak, etab.

Adibidez:

- Zer neurritan laguntzen dio umeari istorioa kontatzen?
- Zer eragin du helduaren jokabideak umearen jardunean? (Zer-nolako galderak egiten ditu?, galderak egitera mugatzen da ala bestelako estrategiak erabiltzen ditu?, ...),
- Zer-nolako estrategiak erabiltzen ditu umearen pentsamendua sustatzeko eta pentsamendu hori hizkuntzaren bidez azaltzeko?
- Zer-nolako estrategiak erabiltzen ditu umeak esaten duena hobeto esaten ikas dezan? (bibliografia kontsultatu).

Azkenik hobekuntza-proposamen arrazonatuak egingo ditugu.

## **7. Lanaren ahozko aurkezpena talde handian eta lanaren txosten idatzia irakasleari entregatu**

Aurkezpena 10 minutukoa izango da. Erabili PPT, Prezi edo nahi duzun tresna. Lanaren txostena entregatzeko irizpideak kontsultatu “txosten idatzirako orientabideak” testuan, eta “ahozko aurkezpenerako oharrak eta orientabideak” txostena.